

# OTEIZAK TXORRADAK ESATEKO

## MAKINIE INBENTAU

“El vasco actual es un vasco de mierda, decadente, y el intelectual euskaldun, peor todavía. ¡ Mucho cuidado !...¿Quién conservó el euskera en la familia de mi padre, pongo por caso?... Los hermanos que eran tontos, todos en el caserío. Mi padre salió y lo perdió”.

Oteizak badaki, emigrazioa inteligentziaren ikuspegitik begiratzen duten bi teoria daudela. Batak, emigrantea, bere etxean bizitza aurrera ateratzeko bezain inteligentea ez izanik, kanpora, kompetentzia gutxiagoko lekuetara, negozio errazak planteatzen daitezkeen lekue-tara joan beharrean aurkitzen den pertsonaia bezala definitzen du. Besteak, berriz, emigrantea tradizioa hautsi, mediokritatea utzi, eta mundu berrietara egokitze behar den adina inteligentzia eta ausardiaz jantzirik deskribatzen digu. Psikologistikoak dira bi teoriok, eta psikologismo guztiak bezala, aski atraktiboak, eta bietan nor beraren gustora edo komenientzira aukeratu behar. Gu ez gara horretan sartzen, baina seguru da gu gizarajook baserrian gelditu zen anaia tontoaren semeak garela. Aita inozoaren seme inozo subalimentatuak. Gure fisikoari begiratu besterik ez baitago, koldo eta bernardoren alturari erreparatzea —altura fisikoa, eta intelektual ere, metro terdian sar dezakete— eta ramon fisikoz altuxeago atera bazai-gu ere, jakina da jakobo deitzen ziotela eskolan, cuanto más alto más bobo, hal-legia. Hala ere errespeto bat merezi du-gu ze karajo.

Jatorduetan hitz bat erdaraz egitea-gatik kaskarreko bat ematen zигun aita tontoa soportatu izan ez bagenu, orain ez baitzen h-az, batasunaz, euskararen estetikaz eta euskaldun berrietaz hitze-giterik izango.

Ondo asko saiatzen ginen disimula-tzen euskaradaren bat ateratzen zitzai-gunean, eskolan borono, pello pellote cabeza de bote, casero eta antzekoak botatzen zizkiguten Otezia bezalako aita listoen seme listok bestela pentsatuko badute ere. Ez baikara ahaztuko el aita y los dos vamos a ver los carreristas esan genuen hartan entzun behar izan genuen-naz. Baina hostia ederrak harfütakoak beroiek ere, esatea gaizki ez badago. geure aita tontoari azkar ikasi baikenion ( castellania fasilidiomes que solo se aprende en un mita de mes) erdara eta erdaldunak, eta Ameriketara joan eta hegoamerikako azentoz mintzo zen osaba listoa adina ere baginela, sukaldean euskaraz hitzegiten bagenuen ere. Eta amak beti errepikatzen zuen gure po-bretasunean ahal den dotoren, eta garbi-en, eta behintzat, txukun.

Eta gure ama dela eta, nondik arra-io dator euskara amaren titietatik tragoz trago hartu genuelako ipuin txinoa. Amaren bularretik, esnea urte pare bat arte ( ez orain bezala, baina euskara, inguratzen gintuen giro erdaldunak ukatzen zion balorea zuen zerbait bezala ikusi nahiean kultura etsaiaren bamegi-roan eradaraz egiteko geure tendentzia “soziologikoa” korrejituz, orduan haur-rak ginenon inteligentzia laburretan euskaldun izatearen sentidua dorpeki, intuitiboki, zentzu animal baten arabe-ra, euskararekin batera ematen ahalegin-tzen ziren guraso tonto etxean geratuta-koengandik jaso genuen, ederki kostata. Geure amak ez baizigun munduko beste edozin amak bezala hitzegiten, euskaraz hitzegiten baizik: gure “ama, pixalea” ez zen prozesu intelektual normal baten hasiera, bi mundu berezi eta kontraesan-korren erdian jartzen gintuen prozesu eskizofreniko baten hasieran baizik, eta Jainkoak daki, zenbateraino izan zaigun baliagarria eskizogrenia hori, teorikoen laguntza hutsaz ezin ulertu diren zenbait prolema interpretatzeko.

Euskara emtea ez zen, ez, titia eska-

intzea bezain erraza, maixuak “si le hablan el vascuence el chico no puede adelantar” edo anaia listoak “ez baitik ezertarako balio, eta bankoan sartzeko kal-terako gainera” esaten zutenean. Eta ez da dena hor akabatzen, amaren bularre-tik edandako euskara famatu hori, salesia-noetan zehar, guatekeen inguruan, kaleetan barrena mantendu behar zen neurrian, eta kultura munduan sartzeko nor beraren kabuz homologatu, euskal-dun guztiok gara nolabait ere euskaldun berriak.

Baina orain harro gaude geure ino-zotasunen, (nolabait ere aztertu egin dugulako) gure aita inuzentea hemen geratu zelako, eta eskolaren lojikaren eta listo guztien iritzien kontra euskaraz hezitzen azertatu egin zuelako. Lapa harkaitzari bezala, posibilitate remoto bati eutsi ziolako. Eta, egia esan, bas-tante potroetaraino gaude, hainbat den-boran ikasi dugun tontooi erakusteko asmoz datozenean. Lehenago ere hamai-ka osaba indiano horrelaxe jokatu ba-ita, sasoi ederrenak Arjentinan eman. eta zahartzarotan, prostata eta guzti sal-da bero bila etxera. Eta etxekook dio-guna, datozela, datozela, baina humil-tasun pixka batekin, gertu garenok ere errespetoa merezi baitugu, eta lurra-landu dituenarentzat, eta txorradak esateko bulak Erroman.

Gero, gainera, alferrik baita, nahi direnak eta gehiago esan ondoren beste harek ( horrek ) bezala, protekzio ofi-ziala eskatzea. Hara ( horra ) nundik, pro-tector eta protegido, denak elkarrekin ibiliko zaizkigun azkenean.

KOLDO IZAGIRRE  
RAMON SAIZARBITORIA